


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



GIZARTE HEZKUNTZA

7. MODULO KO GIDA

**GARAPEN PROFESIONALA ETA
GIZARTE HEZKUNTZAKO
TARDIERA**



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK	3
7. MODULUAREN EGITURA	5
IRAKASLEEN ARTEKO KOORDINAZIOA.....	7
EBALUAZIOA.....	7
IRAKASGAIEN ZERRENDA: Bakoitzaren kompetentzia espezifikoak eta edukiak	8

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

AURKEZPENA

Titulazioaren laugarren urteko lehenengo eta bigarren seihilekoetan garatzen da 7. modulua. Ikasturte osokoa da eta 60 ECTS kreditu eskuratzen dira. Lehendabiziko seihilekoan, 12 ECTS kreditu Kanpo-praktikei dagozkie¹ eta 18 ECTS kreditu hautazko irakasgai. Bigarren seihilekoan, 18 ECTS kreditu Kanpo-praktikei dagozkie eta 12 ECTS kreditu Gradu Amaierako Lanari².

Honako hauek dira ikasleek hasi aurretik bete beharreko baldintzak:

- GrALean matrikulatzeko ikasleak titulazioaren lehendabiziko sei moduluak gaindituta izan behar ditu, hau da, 180 ECTS kreditu, jarraian azaltzen den kreditu-sailkapenaren arabera: 60 ECTS kreditu komun/oinarrizko, 12 ECTS kreditu: Practicum I, 12 ECTS kreditu hautazko eta 96 ECTS kreditu derrigorrezko.
- Practicum II eta IIIan matrikulatzeko, ezinbestekoa da Practicum I irakasgia gainditzea.

7. modulua honako irakasgaiek osatzen dute:

- **Practicum II** (12 ECTS kreditu, Lehenengo Seihilekoa)
- **Hiru hautazko irakasgai** (18 ECTS kreditu, Lehenengo Seihilekoa), minor ezberdinekin lotutakoak. Besteak beste:
 - **Minor: "Dinamización social y trabajo comunitario" (Gaztelera)**
 - . Gorputz eta Mugimendu adierazkortasuna: Esku-hartzeko proposamenak, teknikak eta estrategiak Gizarte Hezkuntzan
 - . Psikologia Positiboa eta Gizarte eta Hezkuntzako Proiektuak
 - . Gaur Egungo Gizarte Mugimenduak
 - **Minor: Gizarte Inklusioa (Eusquera)**
 - . Gizarteko Elkartasun Dinamikak eta Gaur Egungo Gizartea
 - . Desgaitasuna duten pertsonak Gizarteratu eta Komunitatean Txertatzea
 - . Lanbidearen eta Enpleguaren Garapenerako orientazioa
- **Practicum III** (18 ECTS kreditu, Bigarren Seihilekoa)
- **Gradu Amaierako Lana** (12 ECTS kreditu, Bigarren Seihilekoa)

MODULULUAREN GAITASUNAK ETA IKASKETA EMAITZAK

Hauek dira modulu honetan eskuratuko diren gaitasunak eta ikasketaren emaitzak:

¹ http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_practicum_social/eu_p_social/informacion_general.html

² http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/informacion/magisbilbo_gal/eu_gal/gal.html

GAITASUN OROKORRAK

7C1. Gizarte Hezkuntzako testuinguruetan profesionalki esku-hartzea, Gizarte Hezkuntzaren oinarri teoriko-praktikoak eta deontologia profesionalaren errespetua eta gako etikoak kontuan hartuta (KO1, KO2, KO3, KO4, KO5*).

7C2. Gizarte hezkuntzaren izate eta egiteari buruzko ezagutza eraikitzea, lankidetzan, praktika ikertu eta aztertuz, eta etengabeko hobekuntzara bideraturiko interesa sortzen lagunduz (KO6, KO7, KO9*, KO10*).

7C3. Modu arrazoituan komunikatzea, bai idatziz bai ahoz, gizarte hezitzaileen egitekoarekin zerikusia duen guztia (esku-hartzea, prestakuntza, ikerkuntza eta berrikuntza) (KO6, KO8*, KO9*, KO10*9).

7C4. Diziplina anitzeko eta erakundeen arteko taldeetan lan egitea (KO3, KO4, KO8*, KO10*ekin lotuta).

7C5. Hezkuntzako errealitatea analizatzea, modu gogoetatsu, metodiko eta sistematikoan (KO6, KO7, KO10*).

7C6. Gizarte Hezkuntzari berariaz dagozkion oinarrizko testuak modu orokorrean ulertzea, hala hizkuntza ofizialetan, nola atzerriko hizkuntzaren batean (KO1, KO8, KO10*).

MODULUARI LOTUTAKO GAITASUNAK

1. Gizarte eta Hezkuntza arloetako esku-hartzearen eta ekintza-esparruetako oinarri teorikoak (psikologiko, soziologiko eta pedagogikoak) ezagutu eta ulertzea, baita prozesu horiek eusten dituzten legedia eta gizarte-, hezkuntza- eta kultura-politikak ere (KO1).

2. Antzemandako beharriaz erantzuneko dieten hezkuntza eta gizarte arloetako plan, proiektu eta programak diseinatu, garatu eta ebaluatzea, arrisku edota bazterkeria egoeran dauden taldeei arreta berezia eskainita eta profesionalen laguntza eta trebakuntza beharriaz erantzunda (KO2).

3. Hezkuntza harremanak eta gizarte sareak ezartzea ahalbidetuko duten testuinguruak sortzea, pertsona, talde eta komunitatearen garapena sustatuta (KO3).

4. Taldeak, zerbitzuak eta erakundeak dinamizatu, antolatu eta kudeatzea, antzemandako arazo eta zailtasunak ebazteko estrategia eta teknika egokiak sortu eta erabilia (KO4).

5. Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea garatzea, lanbidearen irizpide etiko zein deontologikoei so ginez (KO5)*.

6. Gizartearen errealitatea eta gizarte/hezkuntzako esku-hartze inguru ezberdinak aztertu eta ebaluatzea, gai profesionaleri buruzko hausnarketak barne hartuko dituzten balorazioak egiteko (KO6).

7. Gizarte eta hezkuntzako ekintzari lotutako ikerkuntza eta berrikuntza prozesuak diseinatu eta garatzea, gizarte/hezkuntza arloko arazoak ebazteko (KO7).

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

8. Gizarte-hezkuntza gaiei buruzko ideia, argudio, arazo eta konponbideak publiko ezberdinei ahoz adieraztea (KO8).*

9. Testuinguru ezberdinetan dokumentu profesionalak sortzea, publiko ezberdinei egokituta (KO9).*

10. Etengabeko prestakuntzarekiko jarrera positiboa izatea, gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen eta garapen profesionalaren hobekuntza bultzatzeko (KO10).*

(*Zeharkako gaitasunak dira)

IKASKETA EMAITZAK

- Gizarte Hezkuntzako esku-hartze testuinguruetan jarduera profesionalaren oinarri kontzeptual eta metodologikoak erabiltzea.
- Gure lanaren xede-kolektiboen hezkuntza eta prestakuntza beharrianak modu kritiko eta gogoetatsuan aztertzea.
- Gure lanaren xede-kolektiboarekin ekintza-proposamen espezifikoak eratzea, euren beharrianetara egokituak.
- Lan-esparruan lotura duen ekintza-proiektua modu kritiko eta gogoetatsuan garatu eta ebaluatzea.
- Informazioaren bilketa sistematikoa diseinatzea, beharrezko irizpide eta prozedurak erabilita, aztergai den gizarte eta hezkuntza errealitatea aztertu eta interpretatzeko.
- Practicum II eta Practicum IIIan aukeratu edo esleitutako eremu profesionalean/etan izandako esku-hartze prozesuaren azalpen-memoriak egitea.
- Gizarte hezkuntza arloan ekintza, ikerkuntza eta hobekuntza metodologia ezberdinak ulertu eta erabiltzea.
- Gradu Amaierako Lanaren planteamendu, prozesu eta emaitza modu sistematikoan jasotzen duen testua idatziz aurkeztea. Horretarako, hezkuntza esparruaren berariazko irizpide eta arauak errespetatuta.
- GrALa ahoz defendatzea, azalpen eta debate akademiko argudiatu baten berezko ezaugarrietara egokituta.
- IKTak baliabide osagarri gisa erabiltzea, hala GrALa burutzeko zereginetan, nola ahozko zein idatzizko aurkezpenean.

7. MODULUAREN EGITURA

Titulazioaren azken modulu honen helburua da jasotako prestakuntza finkatzea eta ikasleari praktika profesionalaren analisisan sakontzen laguntzea. Horretarako, profesional lanetan esku-hartze prozesuetan topa ditzakeen egoera, dilema eta arazo espezifikoek gaineko ikerketa, hausnarketa eta interpretazioaz baliatuta. Halaber, etengabeko hobekuntza profesionalaren kulturaren txertatzen ere laguntzen du.

Moduluak izaera ezberdineko hiru irakasgai mota dauzka, modu ezberdinetan moduluaren gaitasun espezifikoak lortzen laguntzen dutenak:

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

- a) *Kanpo-praktikak* (30 ECTS), Practicum II eta Practicum III irakasgaiak osatuak. Practicum I-ean bezalaxe, jarduera eta prozesu multzo bien helburua da ikasleak agertoki profesional errealean esku-hartzea, lan-munduan txertatzen eta hezitzaile taldeetan integratzen laguntzeko. Kanpo-praktika hauek profesionalizazio-prozesuari laguntzen diote, izan ere, ezagutza zientifiko eta jakintza profesionala batzen baititu. Horrela, balorazio pedagogikoa egiteko gaitasuna garatuko du ikasleak, gaitasun profesionalak egiaztatzeko ezinbestekoa.
- b) *Gratu Amaierako Lana* (12 ECTS). Izaera integratua du, izan ere, ikasleak prestakuntza-prozesu osoan zehar garatutako gaitasun multzoa mugiarazten du; interes pertsonalak, burututako ikasketak eta bizitako esperientziak uztartuz. Hautatutako lan modalitatearekin lotutako gaitasun espezifikoak gaineratuko zaizkio horri guztiari. GrALak berrikuntza eta ikerkuntza proiektuen ikuspegi izan beharko du. Horregatik, ikasleak hiru modalitatearen artean aukeratu ahalko du:
- Berrikuntzan oinarritutako lana, esparru profesional erreal batekoa, eta diziplina anitzeko izaera duena.
 - Titulazioan inplikaturako sailek urtero eskaintzen duten gai-katalogo batetik abiatutako sakontze-lana, ikerkuntza eta/edo berrikuntza arloarekin lotuta, betiere.
 - Ikasleak libreki aukeratutako gaia, ikuspegi teoriko-praktiko batetik behar bezala justifikatua, eta titulazioaren esparru zientifikoarekin egokitzen dena.
- c) *Hiru hautazko irakasgai* (18 ECTS), izaera osagarria eta, aldi berean, espezializatua dutenak. Gizarte hezkuntzako jardueraren eta garapen profesionalaren azterketan lagunduko duten tresna profesionalen erabilerarekin lotura izango dute.



GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera

Irakasleen arteko koordinazioa

Modulu honetan sustatzen den koordinazio-prozesua aurreko moduluetakoa baino konplexuagoa da, izan ere, lan-talde ezberdinek parte hartzen dute (titulazioko sail guztietako irakasleek osatuak). Honako hauek izango dira aipatutako lan-taldeak:

- Practicum II-aren tutoretzaren ardura izango duten diziplinarteko taldeak.
- Practicum III-aren tutoretzaren ardura izango duten diziplinarteko taldeak.
- GrALaren tutoretzaren ardura izango duten diziplinarteko taldeak.
- Hautazkotasan irakasleak, zenbaitetan, ibilbide espezializatzaile ezberdinekin lotuak.

Bi batzorde lotuta egongo dira:

- Ikastetxeko Gizarte Hezkuntzako Praktiken Batzordea.
- Ikastetxeko Gizarte Hezkuntzako GrALen Batzordea.

Konplexutasun horren eraginez, koordinazio estua izan behar dute moduluko diziplinarteko mintegiak eta talde zein egitura horiek guztiek. Titulazioaren koordinatzaileak, Kanpo-praktiken Batzordeko eta GALen Batzordeko arduradun orokorrekin batera, jarraibide orokor eta ekintza-plan egokienak diseinatuko ditu, titulazioko azken modulu honi lotutako pertsona guztien esfortzuak batuko direla bermatzeko.

Modulu honen espezifikotasuna dela eta, elkarren artean lotutako antolamendu egitura guztien arteko barne-koordinazioa bermatzeaz gain, erakunde profesionalen arteko komunikazio erraza eta koordinazioa ere ziurtatu beharko dira, ikasleek bertan egiten baitituzte Kanpo-praktikak. Horretarako, Praktiken batzordeak bilera bateratuak antolatuko ditu unibertsitateko egitura ezberdinetako eta erakunde kolaboratzaileetako ordezkariekin. Hartara, alde guztien erantzukizun akademikoak zehaztu behar dira, ikasleen lanerako beharrezko orientazio teoriko-praktikoak eskainita eta alde biek burututako prestakuntza-lanaren gaineko hausnarketa kritikorako espazio komuna sortuta.

Azkenik, GrALen Batzordeak proiektuen zuzendaritzari buruzko orientazio eta erabakien koherentzia zainduko du. Urtero, osatutako orientazio-gidak eta hartutako erabakiak berrikusiko dira, GrALari buruzko lan sistematiko eta zientifikoa eratzeko eta irakasle arduradunekin zein sailtako zuzendariekin komunikazio-prozesu bat sortzeko, esfortzu guztiak bateratze aldera.

Ebaluazioa

Modulu honetan bultzatzen den koordinazio-prozesua aurrekoetan baino konplexuagoa da. Lan-talde desberdinek parte hartzen dute, hau da, titulazioan nahasitako sail guztietako irakasleek aleatorioki osatuta dago.

Moduluaren gaitasun espezifikoen ebaluazioa horrela egingo da:

- a) Zereginak eta, hala dagokionean, idatzizko probak ebaluatzea, irakasle arduradunen esku.
- b) Practicum II eta III zein GrALaren azken lanen berriazko Ebaluazioa, irakasle arduradunen taldearen esku. GrALa baloratzeko, idatzizko aurkezpena zein ahozko defentsa kontuan hartuko dira.

Moduluaren oinarrizko ebaluazio-irizpideak honakoak dira:

- Practicum eta GrALeke zereginetan aurkeztutako hausnarketa maila.
- Idatzizko dokumentuak txostenaren irizpide akademiko formaletara egokitzea.
Hizkuntza gaitasuna: Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –Beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:
 - Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
 - Diskurtsoaren ulergarritasuna
 - Hiztegia eta Ortografia
 - Ergatiboa eta komunztadura
- **Plagioa:** Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta ez da gaindituko.
- Talde barruan lankidetzeta eta lan autonomoaren maila.
- Azaldutako gaitasun komunikatiboaren maila, honako alderdiei dagokienez: diskurtsoaren antolaketa, estresaren kontrola, hartzailen araberako egokitasuna, espazioaren erabilera komunikatiboa, aniztasuna eta erabilitako baliabideen berrikuntza.
- Esku hartzen den egoera zehatzaren behaketa eta analisiaren sakontasun maila.
- Jarduketa profesionalean iniziatiba eta konpromiso maila.
- Ikasleek aurkeztutako ekintzen gaineko hausnarketa maila.
- Informazio iturri ezberdinen erabilera; aukeratutako aztergaia ulertzen eta zientifikoki ebazten lagunduko duten iturri dokumental, digital zein pertsonalak.
- Ideia profesionalak adierazi eta aurkezteko modu ezberdinak erabiltzeko gaitasuna.

Moduluaren curriculum-planteamendua ebaluatzeko, titulazio honetako 1. moduluan ezarritako jarraibideak mantentzen dira, baina Praktiken zein GALen batzordeek modulu honetako lanarekin lotuta egindako ebaluazioaren emaitzekin osotu behar dira.

Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

IRAKASGAIEN ZERRENDIA: Bakoitzaren konpetentzia espezifikoak eta edukiak

Irakasgai bakoitzaren metodologia eta ebaluazioa zehatzak GAUREn argitaratutako irakasgaien gidetan kontsulta daitezke.

Minorra: Dinamizazio soziala eta lan komunitarioa (gaztelania)

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduerak*

1. LA EXPRESIVIDAD CORPORAL Y MOTRIZ: PROPUESTAS, TÉCNICAS Y ESTRATEGIAS DE INTERVENCIÓN EN LA EDUCACIÓN SOCIAL

Competencias específicas

- a) Dinamizar, organizar y gestionar grupos, recursos, servicios y entidades, creando y utilizando las estrategias y técnicas más adecuadas para la resolución de problemas y dificultades detectadas.
- b) Intervenir profesionalmente en contextos de la educación social, sobre las bases teórico-prácticas de la educación social desde claves éticas y de respeto a la deontología profesional con perspectiva de género y responsabilidad profesional.

Contenidos

1. Estrategias corporales y motrices orientadas al desarrollo individual (Autoconocimiento, Bienestar, Expresión)	Recogen la teorización y experimentación de situaciones orientadas a desarrollar una imagen positiva de uno mismo, seguridad, confianza, expresión, así como la elaboración de conocimiento acerca de las diferentes estrategias de intervención y su tratamiento didáctico.
2. Estrategias corporales y motrices orientadas al desarrollo de la perspectiva social (Empatía, Comunicación y Cooperación)	Recogen la teorización y experimentación de situaciones orientadas: a reconocer la importancia del otro, a valorar la necesidad de resolver tareas juntos desde unas relaciones de reciprocidad, a interactuar a través de lenguajes no verbales profundizando en el conocimiento del grupo.

2. PSICOLOGÍA POSITIVA Y PROYECTOS SOCIOEDUCATIVOS

Competencias específicas

- a) Analizar la realidad educativa de una forma reflexiva, metódica y sistemática, teniendo en cuenta, entre otras, la perspectiva de género
- b) Intervenir profesionalmente en contextos de la educación social, sobre las bases teórico-prácticas de la educación social desde claves éticas y de respeto a la deontología profesional con perspectiva de género y responsabilidad profesional

Contenidos

1. Fundamentos e Historia de la Psicología Positiva	Objeto de estudio de la Psicología Positiva. El enfoque salugénico y la ruptura con los modelos patogénicos clásicos. Los tres pilares de la PP. Investigación, Estudio y Aplicación de la PP. Abordaje del área educativa desde la PP. Límites y desafíos actuales de la PP.
2. El estudio del bienestar psicológico	Perspectiva histórica del estudio de la felicidad. Afecto positivo, afecto negativo y bienestar. Modelos teóricos del bienestar. La personalidad feliz. El papel de la cultura, de las circunstancias vitales, y de las actitudes y creencias en el bienestar personal. Cimientos de una vida satisfactoria. El bienestar a lo largo del ciclo vital: en la infancia y adolescencia, en la mediana edad, y en los mayores.

3. Las emociones positivas	Complejidad de las emociones positivas. Teorías de las emociones. Emociones positivas en el presente, en el pasado, y en el futuro.
4. El estudio de las virtudes y fortalezas humanas	El estudio científico de las fortalezas humanas. Clasificación de fortalezas. Hallazgos de la investigación. Desarrollo de las fortalezas personales. Perspectivas futuras.
5. Salud y Psicología positiva	Factores que mantienen las emociones positivas en situaciones adversas. Personalidad resistente y salud. La resiliencia. Pilares de la resiliencia. Vulnerabilidad, resistencia y crecimiento frente al trauma. Desarrollo de recursos psicológicos positivos.
6. Psicología Positiva aplicada a la Educación	La felicidad como meta educativa: posibilidades y límites del aprendizaje de la felicidad. Intervención sobre la persona. Intervención sobre los principales contextos de desarrollo: familia, centro educativo, entorno social.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

3. MOVIMIENTOS SOCIALES CONTEMPORÁNEOS

Competencias específicas

Movimientos sociales contemporáneos es un estudio sobre la acción social por la conquista de derechos y libertades fundamentales a lo largo de los siglos XIX, XX y XXI. Con una amplia visión panorámica analizamos las reivindicaciones, los derechos y los intereses que han promovido cambios sustanciales en la sociedad. Se trata de iniciativas sociales relacionadas con la defensa de intereses adquiridos o la conquista de los derechos de la persona.

Contenidos

1.- Movimientos Sociales e Historia Social	Definición, características y rasgos diferenciadores. Recorrido histórico sobre la variedad de movimientos.
2.- De la Sociedad Estamental a la sociedad de clases.	La revolución industrial y el capitalismo. La revolución liberal burguesa: la formación de la clase obrera y el triunfo de la burguesía. Nación y nacionalismos. El nacimiento de los nuevos estados-nación.
3.- Acción colectiva y cambio social en la sociedad de clases	Las primeras organizaciones obreras. Las Internacionales. El inicio del Estado asistencial.
4.- Los Nuevos Movimientos Sociales ante el Estado del Bienestar	Caracterización de los nuevos movimientos sociales. Contenidos, discursos, valores, formas de acción y organización. Feminismo. Pacifismo. Movimientos Ecologistas. Movimientos de fines del siglo XX: neofascismo, integrismo islámico.
5.- Situación actual	El impacto de los movimientos sociales en nuestra sociedad. Movimientos Antiglobalización. Nuevas formas de construcción social ante el paradigma del capitalismo neoliberal: articulación de la protesta social en un mundo globalizado. Propuestas Societarias Alternativas: Foro Social Mundial, ATTAC, etc. El problema de los recortes en las ayudas sociales.

Minorra: Gizarte inklusioa (euskera)

1. GIZARTE ELKARTASUN DINAMIKAK ETA GAUR EGUNGO GIZARTEA

Konpetentzia espezifikoak

- Hezkuntza-errealitatea aztertu modu erreflexibo, metodiko eta sistemiko batean, besteen artean, generoaren ikuspegia kontuan hartuz.
- Gizarte Hezkuntzako esparruari dagozkion oinarrizko testuak hizkuntza ofizialetan eta atzerriko hizkuntza batean globalki ulertu.

Gai zerrenda

1. Sarrera: Posmodernitatea eta Modernitatearen nozio eta kontzeptua.	Gizarte langilearen lanbidea erlazionatu eta kokatu Gizarte garaikideareta interpretatzeko marko teoriko handietan. Kontutan hartu modu berezi batean Erakundetze eta Deserakundetze prozesuak.
---	---

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

Erakundetze eta Deserakundetzea.	
2. Erromantizismo, Modernitatea eta Posmodernitatea.	Norbanakoaren integrazio-prozesuak Gizarte Modernoan eta Gizarte Garaikidean. Bereiztu modu egokian Gizabanakoaren kontzeptua Modernitatean eta egitura, kultura eta aldaketa subjektiboak, Gizarte garaikidean (kontutan hartuta beraien eragina Gizabanako moderno eta konplexuaren gainean).
3. Gizarteko esparru handiak eta Gizarte Garaikidean bizi duen krisia.	Norbanakoa eta pertsona bakarra. Nazio Estatu eta Gizarte Globala. Erlatibismoaren gizartea. Errealitate likidoa. Gizarte garaikidean eta bere ideia zabaltzeko potentzia/gaitasun haudi aurrean (gizabanakoa jokabide automatiko eta ez erreflexiboak hartzerantz bultzatuz), estrategiak eta mekanismoak ezartzeko gauza izatea.
4. Erakundeak eta Erakundetzea	Gizarte Hezkuntza Erakunde bezala. Erakunde eta Gizarte gaineko eskuhartzearen aldaketa, azken mendeetan zehar. Ondorioak gure eguneroko praktikan gauzatzeko prest egotea.
5. Aldaketa kultural post-modernoa eta ekonomia kulturalaren garapena	Krisiaren esparruak: Menpekotasunaren eta kontsumoaren gizartea, kontsumo espezializatua, moda, musika, publizitatea, teknologi aberriak, aisialdia, gizarte-harreman intimoak, talde izaera-komunitatea. Eskuhartze programak eraikitzeko gaitasuna edukitzea, kontsumo, teknologia berriak, aisialdiaren esparruetan, azaldu ditugun kontzeptuak eta marko teorikoak kontutan hartzen.
6. Kultura aniztasuna eta kulturartekotasuna	Gaur egungo norbanakoaren arazoa, Modernitate likidoaren susperraldian. Norbanako garaikidearen diagnostikoa eta industria kulturalak. Esku-hartze: teknologia berriak eta publizitatea, Krisialdiaren esparruak (Familia/Ezkontza, Lana/Lanbidea, Gizarte harreman intimoak, Talde izaera-komunitatea. Kontsumismoa eta aisialdia) Eskuhartzea, prebentzioa, elikadura trastornoak eta gainontzeko menpekotasunak, eta kontsumo konpulsiboa eskuhartzean integratzea.

2. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK GIZARTERATU ETA KOMUNITATEAN TXERTATZEA

Konpetentzia espezifikokoak

- Gizarte Hezkuntzan izate eta egite profesionalari buruzko ezagutza elkarlanean sortu, ikerkuntzaren eta praktikaren aztertzearen bidez, etengabeko hobekuntzarako interesa sortuz.
- Gizarte Hezitzaileen desgaitasunaren inguruan zeregin profesionala eratzen den edozein lan (esku-hartzea, formakuntza, ikerkuntza eta berrikuntza), bai idatziz bai ahoz, modu arrazoitu batean komunikatu.
- Desgaitasunaren inguruan modu erreflexibo, metodiko eta sistematiko batean hezkuntza-errealitatea aztertu.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduerak*

d) Gizarte Hezitzaileen esparruan desgaitasunaren inguruan dauden oinarrizko testuak ulertu bai hizkuntza ofizialetan bai atzerriko hizkuntza batean.

Gai zerrenda

1. Desgaitasunaren trataeran ibilbide historikoa: integrazioa, inklusioa	Desgaitasunaren trataeran ibilbide historikoa: integrazioa, inklusioa: <ul style="list-style-type: none"> - Kulturaren eta desgaitasunaren historia: Irakurketa soziala. - Desgaitasuna gizarte fenomeno konplexua bezala. - Hezkuntza Bereziaren mugarriak. - Gizarte inklusibora: Europako eredu soziala
2. Desgaitasunaren topikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Desgaitasunaren izendapen-sorta. - Etiketak jartzearen ondorioak. - Babesteko helburuarekin erabilitako diskriminazio-prozesuak. - Sarbide eta duintasun-eskubideak. - Bizi-kalitateko horizontea
3. Desgaitasuna duten pertsonekin esku-hartze soziokomunitarioan testuinguruaren analisia. Desgaitasunaren inguruan Gizarte-Hezitzaileak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunitatean txertatzeko egile desberdinen elkarrizketa, desgaitasuna duten pertsonen garapen maximoa lortu ahal izateko. - Testuinguruaren garrantzia eskuhartze soziokomunitarioan. - Inertzia kulturaletatik nahitako aldaketa kulturalera... desgaitasuna duten pertsonekin jarrera sozialak.
4. Desgaitasuna duten pertsonekin esku-hartzea. Ongizate- estatuan erroka sozioedukatibo berriak: Eskuhartzeko prozesuak eta ereduak	<ul style="list-style-type: none"> - Desgaitasuna duten pertsonekin esku-hartze soziokomunitarioaren testuinguruak eta esparruak. - Hurrengo esparruetan ekintza-programen elaborazioa: arreta goiztiarra, lana, bizikidetasun-unitateak, aisialdia eta denbora libre, sexualitatea eta harreman afektiboak, pertsona nagusiak... eta bilaketa berrien proposamenak.
5. Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera-berdintasun oinarria bermatzeko desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzuetan eta zerbitzu sozioedukatibo sareetan sakonduko dugu. - Onuradunen bizi-kalitatearen baldintzak hobetzeko laguntzak, ahal den heinean, desgaitasunaren arrazoiengatik muga pertsonalak gutxituz.

3. LANBIDEAREN ETA ENPLEGUAREN GARAPENERAKO ORIENTAZIOA

Konpetentzia espezifikoak

- Bakoitzaren proiektu profesionala bideratzen jakitea.
- Laneratzeko Orientazioko teoriak, baliabideak eta esperientziak ezagutu Giza Hezkuntzako ingurune eta egoera ezberdinetara aztertze eta aplikatzeko.

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: *Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduera*

- Orientatzailearen helburuak eta funtzioak aztertu eta Orientazio gaiaren aurrean jarrera gogoetatsu edo pentsakor bat hartu, aztertuz eta baloratuz zein abantaila eta muga dauden, lana lortzeko eta gizakion aukera berdinketa bultzatzeko .
- Lana eta enpleguaren kontzeptuak bereizi; lan merkatuan izan dituen aldaketak baloratu; lanaren giza funtzioak aztertu eta langabeziaren arrazoiak eta eraginak aztertu.
- Lan merkatuak izan diren aldaketak jarrera kritiko batekin aztertu eta enpleguaren aurrean egoera larrian dauden hainbat kolektiboek dituzten orientazio eta formazio beharrak identifikatu.
- Giza hezitzaileen prestaketa eta profesionaltasunerako ekarpenak egin, behar dituen eduki teoriko eta praktikoak emanez, Laneratzeko Orientazio diseinuak, aplikazioak eta ebaluazioak egiteko.
- Laneratzeko orientazio metodologiak antzeman eta Garapen Profesionala kontzeptuaren aukerak aztertu eta esperimenduatu.
- Lanbide Heziketa sistemaren baliabideak miatu, lanean sartzeko zailtasunak dituzten gizakideak behar bezala orientatzeko.
- Gure inguruan lana aurkitzeko dauden erakunde eta baliabideak identifikatu.
- Arriskuan dagoen pertsona edo kolektibo baten egoera aztertzeko eta enplegurako orientazio eta formazio esku-hartze bat proposatzeko.

Gai zerrenda

1. Lana eta enplegua	<ul style="list-style-type: none"> - kontzeptuen esanahia: lana langabezia, lanaren funtzioa - langabeziaren ondorioak - lan betegarria eta lan postuaren orientazioa
2. Lanbide orientazioa / laneratzeko orientazioa	<ul style="list-style-type: none"> - zer da laneratzeko orientazioa?: definizioa, helburuak, ereduak.. - orientazioko ereduak: "career education" kontzeptua. nori zuzentzen da ? - esku hartzeko testuinguruak. metodoak eta modeloak
3. Lanbide heziketa	<ul style="list-style-type: none"> - lanbide heziketaren euskal plana: lanbidez - europar kualifikazio sistema
4. Lanerako lanbide heziketa (lanbide prestakuntza)	<ul style="list-style-type: none"> - langabetuentzako egitarauak: auzolan, prestakuntza egitarauak
5. Nola antolatu garapen profesionala	<ul style="list-style-type: none"> - proiektu profesionala: nola eraiki. Atalak
6. lana bilatzeko errekurtsioak eta teknikak	

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

7. MODULUA: **Garapen profesionala eta Gizarte hezkuntzako jarduerak**